



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Ez ohiko osoko bilkura

**Eguna:** 2020ko uztailaren 7an

**Ordua:** 18:30etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

- Eneko Sarrias Zoco jn. EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and. EH Bildu
- Imanol Lukanbio Larretxea jn. EH Bildu
- Joseba Pikabea Iribarren jn. EH Bildu
- Beñat Mitxelena Danboriana jn. EH Bildu
- Markel Jorajuria Elizondo jn. EH Bildu

**Ez bertaratuak:**

- Dabid Iturria Almandoz jn, EH Bildu.

**Idazkaria:** Ainara Velez Ara.

### **AZTERGAIAK:**

#### **1. Oinezko Bideak moldatzeko kontratazioa arautuko duen baldintza plegua.**

Idazkariak gaia azaltzen du, udalkideei azalduz Kontratu Legeak 80. Artikuluan ezartzen denaren arabera prozedura sinplifikatua egin behar dela diru laguntza eskatu zenean horrela adostu baitzen.

Pleguen inguruko zenbait zalantza argitu ondoren Ohiko Osoko Bilkurak erabakitzen du:

- 1.- Plegu Erregulatzaileria onartzea.
- 2.- Prozedurari hasiera ematea.

#### **2. "Medikuaren Etxea" izeneko udal etxebizitza errentan emateko esleipena arautuko duen baldintza plegua.**

Idazkariak plegu arautzailea azaltzen du, udalkideak pleguaren inguruan eztabaidatzen dute.

Esleipenaren inguruan etxean bizitu behar duenak Arantzan azken bi urteetan erroldatua egon behar dela jartzea erabakitzen dute.

ohiko osoko bilkurak erabaki du:

- 1.- Plegu arautzailea onartzea eta prozedurari hasiera ematea.
- 2.- Alokairuaren hasierako prezio 330 euro ezartzea.
- 3.- Plegua Nafarroako Plataforma Lizitatzailan argitaratzea.

### **3. 20-00448 Gora Jotzeko Helegitearen berri eman eta alegazio helegitearen berri ematea.**

Ikusirik Nafarroako Administrazio Auzitegiko lehendakariaren probidentzia, 2020ko ekainaren 20koa zeinaren bidez Udalari jakinarazten zaio 20-00448 zenbakia duen gora jotzeko helegitea, "Restauraciones Gohierri S.L" eta "Gorriti 10 S.L" enpresek jarria Udalbatzak 2019ko azaroaren 19an hartutako erabakiaren aurka, erabaki horren bidez ezeztatu zen Lopeneko Borda sektoreko Arau Subsidiarioetako egiturazko aldaketa proiektuaren hasierako onespena.

- Marcos Erro Martinez abokatuak 2020ko uztailaren 2an egindako txostenaren arabera.

ohiko osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1. Aipaturiko txosten idatzia onestea.
2. Nafarroako Administrazio Auzitegira bidaltzea onetsi den txostena, administrazio espedientearen kopiarekin batera.

### **4. Peoia kontratatzeko deialdiaren kontrako berraztertze helegitea.**

Idazkariak gaiaren nondik norakoak azaltzen ditu, erabakiz:

- Pedro Mari Larrechea Ordoqui jaunak jarritako berraztertze helegitea, Udalak peoi langile bat kontratatzeko deialdiaren emaitzen aurka.
- Idazkariak emandako txosten juridikoa azaltzen du, bertan proposatuz helegitea ezestea: deialdiaren oinarrietan bi proba eginen zirela adierazten baita.

Azaldutakoan oinarrituz eta kontuan hartuz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedurak 39/2015 legeko 88.6 eta 119 artikuluen adierazten dutena eta txosten juridikoaren arrazoiak, ohiko osoko bilkurak aho batez erabakitzen du:

1. Ezestea Pedro Maria Larrechea Ordoqui Aurkezturiko helegitea udalak, peoiaren azterketaren deialdiaren aurka.
2. Erabaki hau jakinaraztea interesatuari, txosten juridikoarekin batera.

### **5. Lesakako Auzoberri auzoan Nordex Energy Spain S.A enpresak eraiki beharreko parke eolikoaren aurkako erabakia.**

Alkateak Lesakan Auzoberri auzoan Nordex Energy Spain S.A enpresak eraiki beharreko parke eolikoaren berri ematen du, eta Lesakako Udalak proiektuaren aurkako akordioa hartu duela, Lesaka eta Lesakako bizilagunak kontuan hartu gabe

eta ondare historikoari eragindako kalteak eta bertan bizi diren bizilagunen bizitzari eragindako kalteak kontuan hartu gabe egin delako.

Ohiko osoko bilkurak aho batez erabakitzen du:

1.- Lesakako Udalak hartutako erabakiarekin bat egitea eta proiektuaren kontrako iritzia adieraztea.

2.- Lesakako Udala eta interesatuei jakinaraztea akordio hau.

## 6. Alkatearen ebazpenak

**58/2020- 84/2020** ebazpenen berri ematen da eta aho batez berresten dira.

## 7. Eskaerak eta Galderak

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21.00ak direnean alkateak bilera bukatutzat eman du, eta ni idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,  
Eneko Sarrias Zoco



IDAZKARIA,  
Ainara Velez Ara



